

BALOREZKO PROPOSAMENA

Gure proiektua bakarrik berotzen diren tuperretan datza. Polipropilenoazko ontziz egongo dira osatuak hain zuzen ere. Izan ere, ontzi hauek oso arinak dira eta hori gutxi balitz, 200°C-ko tenperaturari euts diezaioke eta oso merkeak dira.



Produktu berritzailea da, orain arte ezagutu dugun produktu baten aurrerapen handia baita. Bestalde, lana errazten du bazkaltzerako orduan zuzenean janaria berotzen delako eta ez delako zertan beste toki bat bilatu behar produktuak berotzeko. Azkenik, erabiltzeko erraza da. Izan ere, mekanismo oso erraza du, botoi sinple bati emanaz janaria berotzen hasten da.



Balioa erantsia du, merkatuan dauden berotzen diren tupperrak entxufatuta egon behar dira janaria berotu ahal izateko. Gure produktua, aldiz, inhalanbrikoa da eta bateria baten bidez funtzionatzen du.

Produktu hau oso erabilgarria da kasu askotan. Esaterako, mendira joatean, zure etxetik urrun ikasten edo lan egiten baduzu etxetik kanpo zabiltzanean...

Gainera, gure tupperrak ingurumena zaintzen dute. Izan ere, kanpoan jaten dugun kasu gehienetan etxetik tupperra eramatearen aukera baztertzen dugu, janaria hotza ez jatearren eta supermerkatuetan erosten dugu sandwichen bat edo entsaladaren bat. Horrek zikinkeria sortzen du (plastikoa, hain zuzen ere). Gure tupperrak etxetik kanpo janari beroa jateko aukera ematen du, eta gainera plastikoaren kontsumoa murrizten laguntzen du. Horretaz gain, behin eta erriro erabili daiteke.

